

EDITORIALA

Aurreko erreformetan bezala, negoziazio kolektiboaren ingurukoan iragarri genuen Espainiako Kongresuaren ibilbidean oraindik are eta gehiago okertu zitekeela; eta halaxe gertatu da. Orain arte sinesten ez zutenek badute orain motiborik irizpidea aldatzeko. Patronala aseezina dela eta nahi duen guztia aginte politikoak ematen diola gauza jakina zen guretzat aspaldidanik. Espainiako Kongresuan onartu diren lan eta negoziazio kolektiboaren inguruko erreformaren aldaketa berriei –gogoan izan indarrean zirela aurrekoak–, beste estutualdi ikaragarria eman diote langileen lan eskubideei.

Besteak beste, ultraaktibitatea urte betera mugatu dute; enprestako malgutasuna ehuneko hamarrera igo dute –bosta gutxi balitz–, modu honetan enpresariak nahierara banatuko duelarik; 13 eguneko gaixoaldia gainditu eta gero enpresariak langilea kalera dezake; kontratu berriak eraginik gabe geratuko dira langabezia tasa %15etik jaisten denean... Egoera hain larria ez balitz, barregura era-gingo luke.

Zalantzarik ez dago neurriok langile klasea are eta gehiago pobretzea ekarriko dutela, soldatik murritzut eta enplegua prekarizatuz. Babes kolektiboa zapuzteko ahaleginari beste bultzada eman nahi izan diote ultraaktibitatea urte betera mugatz, honek makinak jende gutxieneko bermerik utziko baitu eta enpresariak negoziazioa kontrolatuko du nahi duen moduan. Neurriok patronalaren etekinak handitzeko xedearekin burutuak daude, lan harremenan munduan egundoko desoreka sortuaz. Eta nabariagoa da, horrexegatik, hiritarrak eta agintean dagoen klase politikoaren arteko urruntasuna.

Guzti honen aurrean, geurea indartzea besterik ez dugu. Indar korrelazioa handitzea, antolatzea eta afiliatza ez dira hitz hutsalak, lana eta konpromiso handia eska-tzen dute. Beraz, soberan ditugu arrazoiak mobilizatzen jarraitzeko. bide honek ez baitu etenik.

Maiatzaren 31ko borroka eta mobilizazio eguna mugarrí izan beharko litzateke zerbitzu publikoen defentsan; Nafarroan greba dago deitura

M31: GURE ETORKIZUNAREN ALDE BORROKAN

Zerbitzu publikoetako langileek maiatzan zehar egindako mobilizazio kanpainak goia joko du hileko azken egunean. Izen ere, maiatzaren 31 greba orokorra izango da Nafarroako zerbitzu publikoetan, eta borroka eta mobilizazio eguna Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Orain arte egindako mobilizazio ugariek izan duten jarraipen zabala kontutan hartuta, agerikoa da osteguneko deialdiak zerbitzu publikoetako langileen erabateko babes eta sostengua izango duela.

Nekez topatu liteke azken asteetan zerbitzu publikoetako langileak mobilizatu ez diren egun bakar bat. Sektore –irakaskuntza, osasungintza, udal eta foru administrazioa...– eta herrialde guztietañan izan dira ekimenak, eta ezin ukatu izan duten jarraipena.

GREBA OROKORRA NAFARROAN

Nafarroan bereziki handiak izan dira mobilizazioak, batez ere irakaskuntzan. Maiatzaren 22an hilabete honetan deitutako hiru greba egunetatik lehena izan zen. Beste biak maiatzaren 29an eta 31n izango dira. Deialdiaren jarraipena oso zaba-la izan zen. ELA-Gizalanek Nafarroan duen arduradun Imanol Paskualek nabarmenzen duenez, %70etik gorako babesa izan zuen maiatzaren 22ko deialdiak. Gainera, egunean zehar Nafarroa osoan deitutako bilkura eta manifestazioetan milaka lagun batu ziren. Bereziki aipagarria izan zen eguerdian Iruñean egindako manifestazioa.



Iruñean, maiatzaren 22an Iruñean kalitatezko hezkuntza publikoa exijitzeko egindako manifestazioa.

"Iragan urteko urriaren 27an beste greba egun bat egin genuen irakaskuntzan, murrizketen aurka. Greba hori izugarri arrakastatsua izan zen, eta deitzaileok azken hamarkadetako handiena izan zela aipatu genuen. Ba, hori esanda, maiatzaren 22ko oraindik eta arrakastatsuagoa izan zela nabarmendu beharrean gaude. Honek argi erakusten du jendearen haserrea eta ezinegona".

Sigue en la página 2 →

A las 12 horas, concentración frente a la sede de Iberdrola para denunciar la falacia de la llamada economía verde

EL 5 DE JUNIO, JORNADA DE FORMACIÓN SOBRE EL MEDIO AMBIENTE EN BILBAO Y BAIONA

El 5 de junio, coincidiendo con la celebración del Día Internacional del Medio Ambiente, ELA ha organizado una jornada de formación en Bilbao (Paraninfo de la UPV, Abando) con el objetivo de concienciar a los cuadros y militantes del sindicato tanto de la importancia del medio ambiente, en general, como del momento crucial en el que nos encontramos. Tal como explica Ainhara Plazaola, del Departamento de Medio Ambiente, "el planeta está en crisis. Es una crisis económica, pero también ambiental. Por eso es

urgente un cambio radical del actual sistema productivo, distributivo y de consumo. Hay alternativas al actual modelo, y hay que explicarlas y socializarlas". Plazaola destaca, en este sentido, la proximidad de la Cumbre de la Tierra Rio+20, que tendrá lugar del 20 a 22 de junio, así como la Cumbre de los Pueblos, alternativa de la anterior, y que se desarrollará entre los días 15 y 23 de junio. Una delegación del sindicato asistirá y tomará parte en ambas.

Bigarren orrialdean jarraitzen du →





31 mayo: huelga general en los servicios públicos de Navarra y jornada de lucha y movilización en la CAPV. A la izquierda, el cartel de Navarra; a la derecha, el de la CAPV.

"Honek guztiak –gaineratzen du Paskualek– argi uzten du maiatzaren 31ko deialdiak izango duen jarrai-pena".

BORROKA ETA MOBILIZAZIO EGUNA EAEN

Murrizketen aurkako elkarretarazteak Foru Aldundien aurrean, itxildiak Hezkuntza Ordezkaritzan, Ituneko Ikastetxe eta Ikastoletan ordezkarien elkarretaratzeak, batzar iraunkorak sektore ezberdinatan, zerbitzu publikoetako langileen protesta zaratzatuak... Agenda estua eta betea, zalantzarak gabe.

ELA-Gizalaneko idazkari nagusi Igor Eizagirrek nabarmentzen duenez, "ezinbesteko da lan eskubideak eta eskubide sozialak murrizten dituztenen horiengana presioa handitzea. Eta gure haserrean adierazteko dugun modu bakarra langileon eta gizartean mobiliazioa da. Miserriera eramatzen gaituzten politika hauek aldatzeko mobiliazioa beste biderik ez dago eta ez da

izango. Hots, orain arte izan duguna eta kendu nahi digutena lortzen era man gintuen mobilizazio bera".

Ezagirrek argi du zerbitzu publikoetako langileak ez direla krisiaren erantzule, eta erasoei aurre egiteko kalera ateratzeko gonbita luzatu nahi die langileei. "Zerbitzu hauetako langileok ezin dugu besoak gurutzatuta itxaron erasoen aurrean. Aurpegia emanet jarraitu behar dugu. Murrizketak onartzea zerbitzu publikoentzunak suntsiketa onartzea izango litzateke. Izen ere, badakigu euren helburua zerbitzu publikoak merkantzia bihurtzea dela".

Egun osoan zehar lan-zentroetan egingo diren mobilizazioez gain, Eizagirrek arratsaldeko manifestazioetan parte hartzearen garrantzia azpimarratzen du. "18:30tan dugu hitzordua, Bilbon –Moyua–, Donostian –Boulevard Gasteizen –Correos Plaza–. Ez hutsik egin!"

QUIEREN DESMANTELAR TODO LO PÚBLICO

Los diferentes gobiernos, sometidos a los poderes económicos, han decidido desmantelar los servicios públicos. La existencia de servicios públicos universales, gratuitos y de calidad es el reflejo de una sociedad más justa, y el poder económico ha decidido ir suprimiéndolos para que otros hagan negocio con las necesidades básicas de la sociedad. En esta estrategia de desmantelamiento de lo público, las trabajadoras y trabajadores de los servicios públicos somos un obstáculo que han decidido poner en el punto de mira y destruir.

El déficit público (que se debe al insuficiente nivel de ingresos) y el pago de la consiguiente deuda pública les sirve de coartada perfecta para llevar adelante su plan: destruir empleo público y atacar nuestras condiciones de trabajo.

Tras la huelga general de 29 de Marzo Rajoy aprobó el Proyecto de Ley de Presupuestos de 2012. En él se plantea una nueva congelación salarial, la imposibilidad de sacar Ofertas Públicas de Empleo y pretenden ampliar la jornada laboral a 37,5 horas semanales. Ampliación de jornada que se hace con la finalidad de destruir empleo público y supone un claro empeoramiento de las condiciones laborales de todos los trabajadores y trabajadoras. Estas materias se recogen como básicas para que sean aplicadas por todas las Administraciones.

A todo esto hay que sumar las nuevas medidas de ajuste en educación y en sanidad.

En el caso de la Educación, las medidas a aplicar son las siguientes:

- Aumento de las horas lectivas a un mínimo de 25 horas semanales en la enseñanza primaria y a 20 en la secundaria.

- Prohibición de las sustituciones de personal en baja durante los primeros 10 días, es decir, la no cobertura de sustituciones durante 2 semanas.

- Reducción o congelación de los complementos salariales.

- Se posibilita el aumento del ratio de alumnos por aula en un 20%.

- En la Universidad, se aumenta la carga docente de la jornada completa de 24 créditos a 36. Se aumentan las tasas universitarias al alumnado. Se plantea la eliminación de carreras ogrados que no tengan un mínimo de alumnado.

En el caso de la Sanidad, se plantea fijar en el ámbito estatal una cartera de servicios estatal única y restringida, dificultando o impidiendo los servicios sanitarios complementarios que hoy deciden las comunidades autónomas. Asimismo, se restringe el acceso a la población inmigrante, se aumenta el pago de las medicinas y se impone la homologación de categorías profesionales que, sin duda, pretende ser utilizada para rebajar, de nuevo, los salarios y empeorar las condiciones laborales.

Plantar cara es la opción de ELA. Ante estos recortes y los que tienen pensado para el futuro sólo hay dos opciones: aceptar de manera resignada nuestro empobrecimiento (el nuestro y el de toda la clase trabajadora) o pelear.

Ni los salarios ni el gasto social son responsables de lo que sucede.

Hoy es muy evidente que todos los recortes que sufrimos tienen un solo objetivo: llevar ese dinero al pago de intereses y capital a quienes especulan con la deuda pública del Estado; esto es, al poder financiero.

Nos roban para darles a ellos.

¿Economía verde?

Etekin handiak ingurumenaren kontura



2012ko ekainaren 5a, EHUKO paraninfoa (Bilbao)
5 de junio de 2012, paraninfo UPV (Bilbao)

La jornada de Medio Ambiente del 5 de junio dará comienzo a las 9:30 horas de la mañana con una breve presentación de la misma por parte de Mikel Noval. Posteriormente, tomará la palabra Ainhara Plazaola, que explicará la relación de ELA con el Medio Ambiente. Posteriormente, la especialista en el tema, Yayo Herrero, disertará sobre el tema *Vivir bien con menos. Ajustarse a los límites físicos del planeta con criterios de justicia*. Más tarde, esta misma ponente junto a Esther Vivas compartirán algunas reflexiones sobre la Soberanía Alimentaria. Tras el descanso, en torno a las 12:15, Esther Vivas hablará sobre la *Cumbre de Río+20: movilización y Alianzas*. Finalmente, Adrien Kempf explicará la experiencia de Bizi! en Iparralde, poniendo así el punto final a una interesante jornada formativa.

Destacar, asimismo, que se aprovechará el descanso de la jornada para realizar una concentración –en torno a las 12 horas– frente a la sede de Iberdrola, en la plaza Euskadi, para denunciar la falacia de la llamada economía verde. Y es que tal como explica Ainhara Plazaola, "el capitalismo verde no es la solución sino el problema. La Cumbre Río +20 debe ser capaz de darle la vuelta al sistema y plantear alternativas".

La jornada del día 5 organizada por ELA en Bil-

bao se complementará con una conferencia, a las 20 horas en Baiona, en el Chateau Neuf de Lut, organizada conjuntamente con Bizi!. En ella tomarán parte Geneviéve Azam, de ATTAC, Bart Camedras, de Bizi!, y Ainhara Plazaola, bajo el título genérico de *La naturaleza no tiene precio. Los peligros del capitalismo verde*.

JUNIO VERDE Y SOSTENIBLE

Por otra parte, aunque relacionado también con la jornada del día 5, la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua informa de que esta misma semana ha visto la luz una publicación de Yayo Herrero (una de las ponentes) en torno al tema *Vivir bien con menos*. Como es habitual los interesados/as en dicha publicación pueden solicitarla en la Fundación.

Finalmente, Ainhara Plazaola, del departamento de ELA-Ingurumena adelanta que a lo largo de todo el mes de junio hay previstas acciones para recordar la necesidad de un planeta verde y sostenible. Entre ellas destaca una intervención en directo desde Río el 21 de junio, durante la cumbre medioambiental, para valorar el desarrollo de la misma. Asimismo se está trabajando una posible intervención en la Cumbre de los Pueblos para hablar de la alta velocidad junto con Bizi! y la CTA argentina.

PARKING ENSANCHE: ZULOTIK ATERATZEKO 25 EGUN GREBAN



Manu Robles-Arangiz Institutua negoziazio kolektiboko esperientzia positiboak biltzen ari da; helburua, lortutako informazioarekin esperientziak partekatu eta publikazio berezi bat egitea da. Honako Bilboko Ensanche Parkinean lortutako garaipenaren kronika bat da, Unai Oñederrak eta Ivan Gimenezek idatzia. Bertan argi gelditzen denez, afiliazioarekin eta ekintza sindikalarekin lan erreforma gelditu liteke.

"Aupa Eloy!", "Eh! Gero arte!". "Aio Manu!", "Aio, bai". "Zer Joserra? Ondo?", "hementxe!". Zaila zaigu Manu, Eloy eta Joserrari bideo grabaketa egitea. Jendeak etengabe agurtzen ditu eta ez dugu asmatzen saioa hasteko momentuarekin. Azkenean Parking irteeratik apur bat urrutzea erabaki dugu. "Ospetsuak egin ginengauzoan. Badakizu, hainbeste egunetan goiz eta arratsalde hementxe egonda..." azaltzen digu Joserrak.

Bilboko Parking Plaza Ensancheko langileak dira, Bilboko parking zaharrena. 40 urtetik gora dauzka eta berritu gabe gelditzen den bakarra da hiri osoan. Igartzen da barruko giro ilun eta itogarian. Zorua zulox josia dago, eta paretetako zati askotan pintura eroria. "Begira gurpil aulkia horrek kotxeen

irteera maldatik atera behar izan du. Lotsagarria da". Hamarkadatan parkinga egokitzeko zentimorik jarri ez izanak ez du esan nahi erabilzaile kopuruak behera egin duenik. "Auto errota-zioan estatuko bigarren parkinga da: 4 aldiz bete eta husten da egunean. 1.200 auto sartzen dira hemen egunero".

Zazpi dira aparkalekuak lan egiten duten langileak. Bost ELAKo afiliatuak. Antonio Moreno eta Eloy Angulo dira beteranoenak, 42 urte parking berean. Manuel Rojo da, langileen ordezkarria, denbora gutxien daramana, 16 urte: "Viuda de Sainz enpresak 2011ko otsailean aparkalekuaren kudeaketa hartu zuenerako, urtetik gora generaman enpresako ituna berritu gabe, 2009an iraungitu baitzen."

"Bost urte generamatzen KPI igoera hutsarekin 2005ean sinatu genuen itu-nak hala behartuta" esan digu Jose Ramon García, "empresa berriari ituna berritu nahi genuela esan genion, oinarritat Euskalduna Parkindegakoa hartuta, baina ez zuten gurekin begirada gurutzatu ere egin".

Pare bat hilabete pasata, etorri zen beraiekin harremanetan ibiliko zen gizona; guztia konponduko ei zuen poli ona. Itxurakeria hutsa. Abokatuen

kolegioan egin zituzten zenbait bilera, baina guztietan berdina entzun behar izan zuten: inbertsioak egin behar ditugu parking-ean eta ez dugu zuek eskatzen duzuena emateko aukerarik. "KPla besterik ez zigutene eskaintzen, ez lanordu murrizketarik ez beste ezer".

2011ko ekainerako argi zeukanen enpresak kontua luzatzeko asmoa besterik ez zuela, antzuak zirela bilerak, eta ez zuela merezi antzerki horretan denbora gehiago galtzeak. Zazpi langileek asanblada batean hartu zuten aho batez greba mugagabera joateko era-bakia. "Hilabete batzuetako epea eman genien negoziatzen hasteko" argitu nahi izan du Eloyk, "pentsa, otsailek ekainera bada tartea nahi iza-nez gauzak eztaba-datu eta akordiotara iristeko, baina beraiek ez zuten ahalegin nimiñoena egin". "Parking honetan daramatzadan 42 urtetan, halako erabaki bat hartzen behartu gaituzten lehen aldia da" gehitu du Antoniok. Ez omen da harritzeko, beste ELAKide batzuk abisatu baitzie-tzen: "Viuda de Sainz-ekin negoziatzen ari zaretela? Lasai hartu orduan, zerba lortzekotan hilabete batzuk iraun beharko duzue greban!".

Horrek ez zituen kikildu. Zazpi langileen erabakia irmoa zen, aurrera egin behar zen. Hala, irailaren erdialdean greba erregistratu zuten. "Asanbladan aho batez adostutakoa enpresara gutun bidez bidalita ere, aurreabisutik greba hastera dagoen 2 asteko epean ez ziren gurekin harremanetan jarri."

Heldu zen urriaren 3a. Goizeko 8tan itxi behar zuten parkinga. Langa jaiste-ko bi ordu besterik falta ez zirela heldu zen poli ona: "Guztia izorratu duzue! Nik ia-ia konpondu nizkizuen arazoak, eta dena pikutara bidali didazue!". "Nahi izanez gero oraintxe bertan konpon dezakegu kontua" erantzun zio-ten langileek. Baina enpresak ez zuen nahi.

25 egun eman zituen parkingak itxi-ta, sarreran pankarta bat zuela. Langileak egunero gerturatzent ziren bertara. Bi goizez eta bi arratsaldez. Egun bat bai, bestea ere bai. Goizero kartel bat paratzen zuten parking sarreran: Par-kinka egun 1 itxitxa: enpresak hainbeste

euro galdu ditu, langileek beste horrenbeste. Parkinga 2 egun itxitxa: enpresak... "Bertatik pasatzen zen jendea gurekin hitz egiten gelditzen zen. Enpresaren jarrerarekin asaldatuta gel-ditzen ziren gaia azaltzen genienean". Auzotarren babesera sentitu zuten, eta horrek indarra ematen du, egunek aurrera egin ahala animoak beherantz egiteko arriskua baitago. "Gure artean izan genuen batasuna eta erabakitasuna funtsezkoa izan zen. Kontuan izan bakoitzak etxean duen egoera desberdina dela, eta greba luzatzen den heinean horrek sor ditzakeen desadostasunek hausturak ekar ditzaketela." Bost ELAKideek erresistentzi kutxatik kobratzen zuten, USOKoak beretik, eta zazpigarrenak deus ez.

Grebak iraun zuen bitartean enpresak poli ona kendu eta poli gaiztoa jarri zuen. "Zure aurpegia ez zait gus-tatzen. Akordiorik nahi baduzue beste norbait bidali" esan zion Manu ordez-kariari taberna baten izan zuten enkontruan. Formak behekoentzat soili asmatu ziren.

Urriaren 27an, ELAREN bidez, etorri zitzaien enpresak itxuraz asmo onekin eskatutako bilera batera deitzeko. "Enpresak 5 urtean KPI+12%, eta urtero 12 orduko murrizketa eskainita akordiora iritsi ginen 25 egun greban eman ondoren".

Enpresaren jarrera aldaketa eragin zuena ez dakite zehazki zer izan zen. "Amaiera aldean enpresaren izena garbi erakusten zuen pankarta handi bat zintzilikatu genuen, eta horrek min handia egin zien" dio Joserrak. Manuren ustez ordea, parking itxiak eragiten zien galera ez zen erabakigarria izan, "beti esaten zuten dirua ez zitzaiela importa enpresaren izena baizik, horragatik nik uste beste lekuren batetik –udaletik, agian– presionatuko zitzeltela hau konpontzeko".

Akordioa lortuta, eta parkinga berri-ro martxan, enpresak zigorra ezarri zien langileei gaizki portazeagatik: "ez duzue gabonetako saskirk jasoko". Baina langileek, akordioarekin lortutako lan baldintza duinez gain, badute saskia baino gehiago baloratzen duten saririk: auzotarren gertutasun eta esti-mua.

ELA PARTICIPA EN UNA JORNADA POR LA IGUALDAD DE GÉNERO EN EL CONGO

ELA –a través de su asociación para la cooperación Garapena y junto con la CSC de Bélgica– ha organizado y participado en un seminario sobre la promoción e igualdad de género en la República Democrática del Congo los días 14 y 15 de Mayo.

El objetivo del Congreso era fomentar la integración de género y la promoción de la igualdad de género en el seno de la CSC de Congo a través de planes de igualdad.

En las jornadas participaron unas 40 personas, 25 mujeres y 15 hombres, todas y todos delegados del sindicato en la economía formal (cabe resaltar que en este país solamente el 4% trabaja en la economía formal).

ELA hace una valoración positiva y destaca la necesidad de seguir trabajando e impulsando políticas de igualdad no solo a nivel nacional, si no también a nivel internacional.



Rafa Valencia, presidente del comité de Metro Bilbao, destaca el amplio respaldo mostrado por la plantilla a las movilizaciones

"LA DIRECCIÓN DEBERÁ CUMPLIR LOS ACUERDOS ALCANZADOS HACE MÁS DE UN AÑO"



Tras más de año y medio de movilizaciones, el comité de huelga de Metro Bilbao alcanzó el jueves 24 de mayo un acuerdo con la dirección del suburbano.

no. El acuerdo, que recoge la totalidad de las reivindicaciones de las y los trabajadores, ha sido refrendado por el 86% de la plantilla en asamblea. ELA, sindicato mayoritario en Metro Bilbao, exige que a partir de ahora la dirección respete los acuerdos y negocie con los sindicatos.

-¿En qué consiste el acuerdo?

-Lo más importante ha sido lograr que se respeten los acuerdos alcanzados con anterioridad. En este sentido, es importante que se mantenga y aumente la plantilla mínima de conductores, pasando de 162 a 166 personas para poder dar respuesta a la expansión del suburbano a Basauri. Por otra parte, las vacantes que se generen en otros colectivos deberán ser cubiertas con plazas estructurales, contrato fijo y 100% de jornada.

Otro aspecto importante es que se mantiene la estructura de cada turno para que las y los trabajadores puedan cambiar de línea y no estén todo el rato en la Línea 2, donde sólo hay un tramo a cielo abierto.

Por otra parte, una vez que se ha acordado que se prestará el servicio de Nochebuena, ambas partes

comenzaremos de modo inmediato la negociación de su modo de cobertura.

-¿Se puede esperar que la dirección del Metro dé marcha atrás en los acuerdos o lo consideras improbable?

-Lo dijimos en su día: la base es el respeto, y respetando a las personas y sus derechos hemos conseguido llegar a este acuerdo. Si esas pautas se mantienen y los acuerdos también son respetados no habrá mayores problemas. Si por el contrario volvemos a anteriores actitudes, los cinco sindicatos representados en el acuerdo hemos demostrado nuestra capacidad de lucha y respuesta contando con un amplio respaldo de trabajadores y trabajadoras.

Para evitar cualquier incidencia futura, se pretende la creación de un foro de carácter mensual entre dirección y sindicatos. El objetivo es que la información fluya entre ambas partes y las relaciones laborales vayan recuperando el sitio que les corresponde. En el caso de problemas en la interpretación del acuerdo acudiremos, tal y como recoge el pacto, al Consejo de Relaciones Laborales.

EL CONGRESO EMPEORA LA REFORMA LABORAL PARA EMPOBRECER A LA CLASE TRABAJADORA

El Congreso de los Diputados aprobó el jueves 24 de mayo un texto de reforma laboral que empeora sustancialmente el que dio lugar a la masiva huelga general celebrada en Hego Euskal Herria el pasado 29 de marzo. El texto, tras su paso por el Congreso, ha sido enviado al Senado.

Las enmiendas aprobadas suponen, entre otros retrocesos:

■ La reducción del plazo de prórroga de la vigencia de los convenios, una vez finalizada su duración pactada, que pasa de dos años a uno.

■ El incremento del 5 al 10% del porcentaje de jornada que el empresario puede distribuir unilateralmente de manera irregular.

Las medidas van encaminadas a empobrecer a la clase trabajadora,

recortando los salarios y precarizando más el empleo. Una vez más se constata la enorme distancia entre la clase política gobernante y la ciudadanía. Los cambios aprobados muestran también la connivencia entre el poder empresarial y quienes nos gobiernan. La patronal estará hoy más contenta que ayer, porque va a tener más facilidades para aumentar sus beneficios.

La reforma supuso un claro retroceso en los derechos laborales y sociales de la clase trabajadora. La postura de los grupos parlamentarios auguraban un empeoramiento del texto en el trámite parlamentario. Y así ha sucedido.

Ante todo ello, ELA insiste en la necesidad de hacer frente a la reforma a través de la organización en las empresas y la movilización.

www.elasindikatua.org

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.elasindikatua.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**